


Legazpiko Agenda 21eko Foroaren **akta**

2016ko azaroaren 24an, 18:30etik 20:00etara,
Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

1. Gaurko tailerraren gaia eta helburuak

2016an, Legazpiko Tokiko Agenda 21aren Foroak egingo duen azkeneko tailerrean, Legazpiko herri-basoen kudeaketan jarri nahi izan dugu arreta.

Zehazki, eta Legazpiko Udalak Legazpiko baso-kudeaketa iraunkorrerako Plan berria idazteko lanak hasi dituela aprobetxatuz, hauxe da gaur bilatzen duguna:



1. Agenda 21eko Foroarekin honakoa partekatu nahi dugu:
 - Zer den eta zertarako den baso-kudeaketa iraunkorrerako plana.
 - Legazpiko herri-basoen ezaugarriak.
 - Kudeaketa-plan berriaren aurrean planteatzen diren iraunkortasun-irizpideak.
2. Planean jasoko diren hainbat eremu zehatzetarako jarduketa-aukera egokiak zeintzuk izan daitezkeen eztabaidatu.

Horrela, tailerrak ikuspegi bikoitza izan du: irakastea eta taldean kontrastatzea.

Gaurko bileran bi laguntzaile apartek hartu dute parte: Jone Azpeitia, Legazpiko Udaleko nekazaritza eta hirigintzako teknikariak eta Jone Maioz, Gipuzkoako Baso-jabeen Elkarteko teknikariak. Biei esker hobeto ezagutu dugu Legazpiko biodibertsitatea eta paisaia; horrezaz gain, ezagutzak partekatu ditugu eta oso baliagarria izan da Legazpiko baso-kudeaketa iraunkorrerako Plan berrirako irizpide batzuk finkatzeko.

2. Parte hartu duten pertsonak

Guztira 17 pertsonak hartu dute gaurko bileran parte, 8 emakume eta 9 gizon.





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Izen-deituraz:

- **Legazpiko bizilagunak:**

Xabier Baztarrika (Buskabaso) – Rafa Gomez (Buskabaso) – Manuel Fernandez (Nagusilan) – Jesus Mari Otermin – Pilar Makibar – M^a Cruz Lizarazu – Juan Pedro Agirre – Felix Pinillos – M^a Asun Ugarte – Juan Carlos Agirre.

- **Udal arduradun politikoak eta teknikoak:**

Inma Hernandez (industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikaria) – Jone Azpeitia (nekazaritza eta hirigintzako teknikaria) - Alberto Bezunartea (zinegotzia) - Eric Galvez (zinegotzia) – Koldobike Olabide (alkatea).

- **Kanpoko laguntzaileak:**

Jone Maioz (Baso Elkarte, Gipuzkoako Baso-jabeen elkarte) - Iciar Montejo eta Zorione Aierbe (Prometea), dinamizazio-lanetan.

Eskerrik asko! Taldearen interesarekin eta ezaguerarekin geratzen gara, Legazpi iraunkorragoa eta bere ingurumenarekin eta natura-balioekin konprometituagoa lortzeko bidean aurrera egiteko hain premiazkoa dena.

3. Baso-kudeaketa iraunkorrerako Plan berrirantz

Abiatzeko hainbat datu

Plan berria egiteko unea iritsi da

Jone Azpeitia teknikariak gaia kokatzen lagundu digu eta, horretarako ohar garrantzitsuak eskaini dizkigu:

- Zer da baso-kudeaketa iraunkorrerako plan bat?

Hainbat murrizketa kontuan hartuz eta iraunkortasun-irizpideen arabera helburu batzuk lortzeko baso-kudeaketa planifikatzen duen dokumentua da.

Horrela, honako gaietako buruzko informazio zehatza eskaintzen du:

- Mendiak non dauden
- Mendiak nola dauden
- Mendian zer egingo den



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Legazpiren kasuan, baso-kudeaketaren lehen plana 2004koa da eta indarrean zegoen araudiaren arabera eta PEFC ziurtagiria (baso-kudeaketa iraunkorra egiaztatzen duen agiria) eskuratzeko ezarritako jarraibideen arabera egin zen.

Urte asko igaro dira eta plana eguneratu beharra dago. Legazpiko Udala hasi da egin behar horrekin eta horretarako Gipuzkoako Baso-jabeen Elkarteko teknikari baten laguntza jasotzen du.

Legazpiko basoak: begirada bat globaltasunari

- Zein da Legazpik duen baso-azalera? Nola banatzen da jabegoa? Zein espezie-mota ditugu?

Hona hemen datu batzuk:

- **Azalera:** Legazpiko azaleraren % 80a basoa da.
- **Titulartasuna:** basoen % 79 jabego pribatua da eta % 21 jabego publikoa.
- **Espezieak:** basoen % 72 espezie koniferoek betetzen dute eta % 28 espezie hostozabalek.

Koniferoen artean *pinus nigra* –pinu beltza– gailentzen da; ondoren datoz *pinus radiata* –intsinis pinua–, *larix spp.* –pinu zuria– eta beste espezieak.

Eta espezie hostozabalen artean pagoa da azalera handiena okupatzen duena; ondoren datoz *Quercus petraea* –haritz kandugabea– eta *Quercus robur* –haritz kanduduna–. Gipuzkoako totalarekiko, azpimarratzekoa da Legazpin azalera handia okupatzen duela *Quercus petraea* –haritz kandugabea– espezieak.

- “Bertako” espezieak? “Kanpoko” espezieak?

Basoei eta baso-espeziei buruz lan egiten dugunean sortzen ohi den debatearen aurrean, Jone Maiozek honako hausnarketa partekatu du: etxe inguruneko landare-espezieei eta animaliei erreparatzen badiegu – barazkiak, landareak, animaliak,... –, gehienak kanpotik eta oso urrutitik ekarritakoak dira baina gero gure ingurunera egokitu ditugu eta bertakotzat hartu ditugu. Adibidez: patata, azenarioa, artoa,...; eta animalien artean, behiak, oiloak edo ardiak.

Antzeko zerbait gertatzen da basoko espezieekin: bertakotzat jo daitekeen haritza kenduta, gainerakoak kanpotik etorritakoak dira.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Plan berrirantz: proposamenak eta ekarpenak

Abiatzeko informazioa partekatu ondoren, Foroa lantzen ari den Plan berriari zentratu da.

Legazpiko herri-basoen kudeaketa iraunkorrerako Planaren gakoak

Kudeaketa-plan berriak:

- Guztira 45 hektarea hartuko ditu; alde batetik, udal jabeko publikoko basoak eta, bestetik, Legazpiko Udalak kudeatzen dituen basoak.
Azalera horretan, Aizkorri-Aratz parke naturalean dauden 2 eremu sartzen dira –Trikutxeta eta Antxumaitz–; beraz, bi eremu horietan parke naturalean aplikatzen den araudia aplikatuko da.
- 20 urteko indarraldia izango du.
- Plan ekonomiko bati lotuko zaio.

Planaren proposamenak eremu desberdinetarako

Jarraian, Jone Azpeitiak eta Jone Maiozek eremu bakoitzerako Planak egiten dituen proposamenak azaldu dizkigute: kasu batzuetan proposamen itxiak dira eta beste batzuetan, Foroak aukera desberdinen artean azkeneko dokumentuan sartuko dena eztabaidatu eta erabaki ahal izango du.

Hauek dira eremuak:

- Ardanpilleta-Lakiola
- Trikutxeta
- Arraseta
- Errausketa labe zaharra
- Antxumaitz
- Arrolamendi

Segidan, ikus ditzagun xehetasunak, banan-banan.

Ardanpilleta-Lakiola

Planaren proposamenak – egingo diren lanak:


- Orain dela bi urte koniferoak kendu ziren gunetan soilguneak geratu dira.

Egingo diren datozen "Zuhaitz Egunetan" horiek betetzea komeni da.

- Aterpearen parean, ezker aldean, dagoen larizio pinuaren zati txikiak 52 urte ditu.

3 aukera planteatzeko dira:

- a. Pinua kendu eta hostozabalak landatzea.
- b. Pinua kendu eta belardia uztea.
- c. Bakanketa egitea eta itzala emango duten zuhaitz batzuk uztea.



Foroaren jarrera:

Eremu hori aisialdirako eremua dela kontuan hartuta, Foroak pinuak poliki-poliki kentzen joan daitezela eta belardia uztea proposatu du; halaber, ingurunean itzalguneak sortzen joateko denbora ematea proposatzen du.

Trikutxeta

Planaren proposamenak – egingo diren lanak:

- Trikutxetan hiru gune desberdin daude
- Horietako batean larizio pinua dago eta pinu horrek 50 urte hartu behar ditu mozteko baimena eskuratzeko (2032).
- Partzela Aizkorri-Aratz parke naturalaren Kontserbazio eremuan dago (araudi berezia).
- Horregatik, jardunbidea planean jasotzea zentzurik ez duela ulertzen da, araudiak indarra galtzean pinudiak 55 urte izango dituelako.



Arraseta

Planaren proposamenak – egingo diren lanak:

- Intsinis pinuaren sailak 25 urte ditu. Hau proposatzen da:
 - 2017: bakanketa txikia egitea.
 - 2022: bigarren bakanketa egitea.
- 2028tik aurrera bota ahal izango da. Eta horretarako, **aukera desberdinak daude:**
 - a. Partzela osoan bukaeran moztea.
 - b. Sailka moztea.
 - c. Bakanketak egiten joatea eta zuhaitzak zahartzen uztea (faunarentzat mesedegarria).
- Bukaeran partzela osoan mozketa egitea edo sailka moztea erabakiz gero, landatzeko aukera desberdinak planteatzen dira:
 - d. Koniferoen artean: intsinis pinua edo criptomera.
 - e. Hostozabalen artean: haritza, haritz gorria, pagoa, gaztainondoa, akazia, gurbeondoa, gereziandoa,...



Foroaren jarrera:

Eremu honetan, aukera desberdinek paisaian izan dezaketen eragina eta begi-inpaktua oso garrantzitsua da. Horrela, bukaeran partzela osoan mozketa egitea irtenbide okerrera izango litzateke, inpaktu handia izango lukeelako. Modu berean, teknikoki, sailka moztea aukera egokiena izan daitekeela esan da, esku-hartzeak programa daitezkeelako, kostuak,.... C aukerak arrisku bat dauka: eroriz gero zuhaitz zaharrak sor daitezkeela. Horrela, Foroak Planean sailka mozteko aukeraren alde egiten du baina 2 xehetasunekin:

- Zuhaitzak landu behar direnean, hostozabalak landatzea.
- Eta espezieak eta haien konbinazioa aukeratu aurretik, 2050ean adibidez bertako baso-paisaia nolakoa izango den irudikatzea; paisaiaren ikuspegitik, espezieen nahasketa egokiena zein izan daitekeen irudikatzea da proposatzen dena.

Foroaren beste ekarpen batzuk:

Foroa, halaber, kezkatuta agertu da mendietan ibiltzen diren motorrek sortzen duten eragin negatiboa dela eta; horiek ezin dira gainera pistetatik kanpo ibili. Araudia argia da baina heziketa falta da eta zaintze-lana ere bai. Ildo beretik, eta horren eskumena Foru Aldundiarena denez, Udalak Aldundiari ahalegin handiagoa eska diezaiola eskatzen da.

Errausketa labe zaharra

Planaren proposamenak – egingo diren lanak:

- 1997an landatutako astigarrak eta lizarrak daude.
- Partzela honetan mantentze-lanak egitea proposatzen da.



Antxumaitz

Planaren proposamenak – egingo diren lanak:

- 1992an landatutako larizio pinuak daude.
- Orain dela bi urte bakanketa egin zen eta momentuz ez da gehiago egin behar.



Arrolamendi

Planaren proposamenak – egingo diren lanak:

- Plan zaharrean partzela hau ez zegoen sartuta.
- Mendi-larre gisa erabiltzen da. Ez da komenigarria ikusten erabilera hori aldatzea, zonaldeko artzainek erabiltzen dute eta.





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Taldeak hitz egiteko izan duen denboran, beste **idea eta kontu interesgarriak** sortu dira eta horiekin osatzen dugu atal hau:

Foroaren beste ekarpen batzuk:

- Planteatu liteke Legazpiko Udalak aurrekontu partida berri bat jartzea urtero baso-lursailak erosten joateko? Beti esan den kontua eta aspaldiko udal apustua da baina ez da orain arte gauzatu.

- Baserritarrek lan handia egiten dute basoak zaintzen eta nahitaezkoa da lan hori onartzea eta aitortzea.

Eskari hori ez da berria baina lan hori balioestea egin beharreko gauza da eta premiazkoa da, halaber, errekonozimendu bat. Aitortza hori baserritarrei diru bat emanez egin daiteke, beraiei itzuliko zaien zerga baten bidez,.....

- Nola bultza daiteke jabe pribatuek koniferoak landatu ordez hostozabalak lan ditzatela?

Horren haritik, lan handiena Foru Aldundiak egin dezake, Udalak ez duelako horretarako eskumenik –eskumen hori eta kudeaketa bere gain hartzen ez baditu behintzat–.

- Orkatzak ere arazo dira, landareen espezie gazteak jaten eta hondatzen dituztelako. Udalak egin al dezake zerbait horren gainean?

Eta poliki-poliki bukaerara iristen gara.

4. Informazio-oharra

Urtero bezalaxe, Legazpiko Udalak bat egin du azaroaren 21etik 29ra ospatzen ari den Hondakinak prebenitzeko Europako Astearekin. Ekimen horren helburua hondakinak murriztearen, berrerabiltzearen eta birziklatzearen garrantziaz sentsibilizatzea da.

Ekimen horren baitan, iaz hasi zen "Etxeko Ura" izeneko kanpainari eman zaio jarraipena, eskualdeko jatetxeetan etxeko ura hartzea sustatuz.

Dagoeneko 8 dira kanpaina horretan parte hartzen duten Legazpiko jatetxeak eta lanean ari dira gehiago izan daitezen.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



5. Eta bukatzen dugu

Pozik gainera, gaur asko ikasi dugulako gure basoei eta haien kudeaketa iraunkorrari buruz.

Horrezaz gain, Legazpiko Agenda 21eko Foroak beste urte bat bete du. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu 2016an Foroaren tailerretan parte hartu duten pertsona eta erakunde guztiei. Eta eskerrak emate horrekin agur esaten dugu.

Eskerrik asko!

Eskerrik asko Legazpi iraunkorragoa izan dadin lan egiten duen topagune honekin konprometituta jarraitzeagatik.